

# Asisko gutuna

2010eko urtarrila. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

kanporantz, elkartasuna

15. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sarean gonbitea egiten zaigu, eguneroko bizitzan frantziskotar espiritualtasuna markatzen duten lau printzipioak bizitzera. Hil honetan Gutunak hirugarrenari begiratzen dio: solidaritateari. Honek Ebanjelioaren gune batera garamatza: pobretasunera.

Hainbeste asmo egin ohi diren urte-hasiera hau, izan daiteke une egokia urte berrirako proiektu eta aurrekalkuluetan partekatzea sartzeko, hau da, geure eguneroko bizitzan garenetik eta daukagunetik pixka bat besteen alde jartzea. Urte Berri on!

## Gogoetarako gaia

### Soberan dugun guztia

Jesusen bizitzan eta mezuan, eta Ebanjelio osoan zehar, funtsezkoa da pobretasunaren kontzeptua. Ez dago ihesbiderik: kontzeptu horretatik lehiatzeko ihes egin nahi izanda ere eta gurekin zerikusirik ez balu bezala ibilita ere, zerbait inportantea eduki behar du Jesusen urratsei jarraitzeko, egiaz kristau izan ahal izateko.

Espirituz pobre izan gaitezkeela, gauza askotan pobre garela esaten dugu, horrela geure bizimoduarekin lasai jarrai ahal izateko; izan ere oso latza baita behartsu izatea, hilaren azkenera iritsi ezinik ibiltzea; inondik inora ere ez dugu "ipurdia agerian" gelditu nahi mundu honetan. Pobreza- eta eskusio-modu berriak ditugu mehatxuka geure lehen mundu honetan: bizimodu hobe baten bila kanpotik datozkigun behartsuek aukera gutxi dute gure oraindainoko gizarte guztiz aberats honetan sartzeko, eta gu geu bazterrean gelditzeko arriskuan gaude. Eta geure inguruan, garapenean ezin sarturik dabil beste mundu guztia. Eta panorama honetan non kokatu geure burua, Jesusen mezuak guri esateko zerbait baldin badauka? *Soberan dudan guztia besteari falta zaio.*

Esaldi horretan eta bere gordintasunean behin eta berriz pentsatuz, badirudi egia asko daukela, eta gure bizimoduarekin zerikusi asko duten gauzez mintzo zaigula: beharrezko ez ditugun gauzez betea dabil gure bizitza; beharrezko dugu bizimodu xumea eramatea, nahikoa dugunarekin bizitzeko etika apurka lortuz joatea, bizitzarako irizpide gisa. Erraza ez da ezer; erraza balitz, honezkero eman genituen pausoak; konplikazio askoz bizi gara, gureekiko gure erantzukizunei lotuak, eta ziurtasun faltaz zorabiatuta; soberan dugun guztia besteari falta zaiola esatea, agian, gehiegizkoa litzateke edo tormentuzkoa, bere horretan onartzeko. Baina bizi garen munduan biziz, izan daiteke kontuan hartzeko irizpidea, erreferentziarako markoa, ezer erantsi ez dakigun eta liberatuz joan gaitezen.

Funtsezkoa denetik bizitzea urruti daukagu, baina baieztapen horri guregan sartzen uzten badiogu, joan gaitezke lehentasunei buruzko geure irizpideak aldatuz. Horren bidez bihur gaitezke libreagoak, funtsezkoa denera hurbiltzeko: geure bihotzera, eta Kristoren bihotzera.

## Ebanjelioko pasartea: Mk 10, 17-23.26

Bidean abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion: Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko? Jesusek erantzun zion: Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, ohoratu aita-amak. Hark, orduan: Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia. Jesus maitasunez begira jarri zitzaion eta esan zion: Gauza bat falta zaizu bakarrik: zoaz, saldu daukazun

guztia eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri. Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta atsekabez joan, ondasun handien jabe baitzen. Inguruan begiratzuz, Jesusek esan zien bere ikasleei: Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan! Ikasleek honela zioten beren artean: Nor salba daiteke, orduan? Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: Gizakientzat bai ezinezko, baina Jainkoarentzat ez, dena baitezake Jainkoak.

## Espiritualtasun frantziskotarra

Bai ezustean harrapatzen gaituela Jesusek honela esaten digunean: *“Gauza bat falta zaizu bakarrik: zoaz, saldu daukazu guztia eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri”*. *“Zuek denok anai-arrebak zarete”*. Zein zaila egiten zaigun benetan anai-arreba izatea. Agian ezer gabe gelditzeko, edo egunen batean faltan izateko, beldurratik, zail egiten zaigu guk baino gehiago behar dutenekin daukaguna eta garena partekatzea, eta pilotzeko eta gordetzeko joera hartzen dugu.

Honez gain, inguruan kontsumoaren logika dabilkigularik, bekatu egiten dugu justizia eta solidaritatearen aurka behar-beharrezkoa ere ez daukatenekin, Jainkoaren dohain hutsa dena geure eginez, eta Jainkoagandik hartu duguna “Hari itzultzea”, Frantzisko anaiak nahi zuen bezala, ahaztuz. Beharrezkotzat jotzen dugu baliagarri eta gehiegizko duguna.

Jakingo bagenu, ondasun eta diruaren aurrean “jabe ez izateak” eta askatasuna edukitzeak nolako poza eta bakea ematen duen. Orduan inork esan gabe eta horretarako asmorik egin gabe, elkartasuna lortuko genuke senideekin, solidaritatea denekin. Eta horrek, guztiokin harreman berriak izatera eramango gintuzke, beldurrik gabeko eta defenditzen ibili beharrik gabeko harremanak, askatasunezkoak. Horra hor, anaia pobreen askatasuna. Frantzisko izan zen horren lekuko eta horrela izaten jarraitzen du guretzat.

## Magnifikat

Haundiesten zaitut, Jauna,  
pozaren pozez daukat nire barrena;  
Zu, Jainkoa, baitzara nire salbamera,  
ikusit baituzu mirabe honen umiltasuna.

Gauza haundiak egin baitituzu, Jauna, nire alde:  
Santua zara, eta Zure errukia  
gizaldiz gizaldi.

Buru-harroak suntsitu dituzu, Jauna;  
ahaltuak goi-postuetatik bota,  
eta gora jaso dituzu ezerezak;  
ondasunez bete dituzu gose zeudenak,  
eta esku-hutsik bidali asko zutenak.

Lagun etorri zaizu zure herria,  
zure errukiaz oroiturik;  
gure arbasoei hala zenien hitz emana  
Abraham-i eta ondorengoei betiko esana.

## Gutuneko azken hitzak

Hainbeste premia sorrarazi ditugu, arrazoirik onenen itxurapean!

## 2010eko otsaileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate otsaileko erreferentzia guztiak:

1 Mk 5,1-20	7 Lk 5, 1-11	13 Mk 8,1-10	19 Mt 9,14-15	25 Mt 7,7-12
2 Lk 2,22-40	8 Mk 6, 53-56	14 Lk 6, 17. 20-26	20 Lk 5,27-32	26 Mt 5,20-26
3 Mk 6,1-6	9 Mk 7,1-13	15 Mk 8,11-13	21 Lk 4, 1-13	27 Mt 5,43-48
4 Mk 6,7-13	10 Mk 7,14-23	16 Mk 8,14-21	22 Mt 16,13-19	28 Lk 9, 28b-36
5 Mk 6,14-29	11 Mk 7,24-30	17 Mt 6,1-6.16-18	23 Mt 6,7-15	
6 Mk 6,30-34	12 Mk 7,31-37	18 Lk 9,22-25	24 Lk 11,29-32	

Oharrak:

Asis Sarearen ezaugarri nagusia da irekia izan nahi duela eta bere asmoa biderkatzea. Irekitasun hau sarean parte hartzen dugun bakoitzari egitea dagokigu. Guztiok biderka dezakegu Asis Sarea, hileroko Gutun hau jasotzera edo hileroko azken ostegunetan 19.30ean, ohiko lekuetan, ospatzen dugun otoitzaldian parte hartzera nor gonbida dezakegun pentsatuz.

Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua [asissarea@arantzazu.org](mailto:asissarea@arantzazu.org) helbide elektronikora.

# Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

## Asisko gutuna

2010eko urtarrila. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua,

kanporantz: elkartasuna

15. zenbakia

Hil honetan, elkartasunaren aspektu nagusi batean, aldi berean Ebanjelioaren muin denean, jartzen dugu arreta: pobretasunean. Gai zaila da, baina geure buruari serioски planteatu beharrekoa, nondik norako- eta/edo fede-bilaketan bidea egiteko, bilaketa horrek ezingo dituelarik, inongo kasuan, besteak albora utzi.

### Soberan dugun guztia

Zer esnarazten dizu hau entzuteak: *“Soberan dudan guztia besteari falta zaio”*? Utzi esaldi horri zeure barru-barruraino sartzen eta aldi batean zeure baitan egoten; gero galdetu zeure buruari: badu zerikusirik nirekin? Sentitzen dut barne-gonbiteren bat, ezartzen zait erabakiren edo hautapen txikiren bat?

Eman dezake laguntza, norbere bizitzan beharrezko eta funtsezko denaren kontziente egiteak. Ikuspuntu honetatik, zer joan naiteke uzten? Zer parteka dezaket besteekin?

### Dena dezake Jainkoak

Norbere fedearekin nahiz etikarekin koherente izan nahi duenak senti dezake nolabaiteko larritasuna ebanjelioko testu honen aurrean, eta ikasleen antzera galdetu: *“nor salba daiteke, orduan?”*. Testu honek ardatz-ardatzean jartzen gaitu, ebanjelioko pobretasuna bizitzen aurrera egin ahal izateko. Jesusek asko eskatzen du, baina argi uzten du, gauza ez dela hainbeste guk egin dezakeguna, Jainkoak guregan egin dezakeena baizik: *“Gizakiarentzat bai ezinezko, baina Jainkoarentzat ez, dena baitezake Jainkoak”*. Guk egin dezakegu “hanka”: guri pausoak ematea dagokigu, konpromisoak hartzea, tiramenean jartzea; baina jakinez, azken batean Jainkoaren egitekoa dela bihotzaren sakona aldatzea.

### Desjabetzeak ematen duen alaitasuna

Frantziskok ondo ulertu zuen hil honetako ebanjelioa: dena utzi eta Jesusi Jarraitu zion. Gizaki askatua izan zen, denetik desjabetua, dena zeukalako, edo hobeto esanda inportanteena zeukalako: Jainkoa. Iturri honetan du sorrera haren pobre, ezer gabe, bizitzeko hautapenak, besteei emana bizitzekoak, haren alaitasun-iturriak.

Nondik sortzen dira zure konprometitzeko desioak, eta dagoeneko egiten dituzun hautapenak? Zeure buruarekiko exijentziak, zeure egin duzun pentsamoldea, zeure barne-askatasuna ... ? Gauzak “nondik” egiten ditugun horrek, garratzi handia du. Zergatik egiten zaizu hain neketsua gauzetatik, dirutik, desjabetzea eta askatzea? Egin zeure buruari galdera, ez joan aurrera begiratu gabe.

### Ikusi baituzu mirabe honen umiltasuna

Ez daukagu inolako helmugarik lortu beharrik, altura handiko izan beharrik, Jainkoak bere begiak gudan jar ditzan. Jainkoa bere salbamen-historia eginez doa gutako bakoitzarengan. Errepara iezaiozu zeure bizitzari txiki zinetik: zer egin du zure alde? Sumatu duzu edo sumatzen duzu zeure bizitzan Jaunak egin dizun errukia? Zertan? Utzi zeure bihotzari esker ona eta miresmena adierazten, horrelako Jainkoaren aurrean.

Esan duguna kontuan hartuz, ezin dugu pentsatu dena berdin izan denik. Argi zeukan Mariak “Magnificat” kantika abestean: Jainkoak berak ere, denak maite izanik, ez gaitu denok era berean maite: batzuk *goi-postuetatik bota* beharko ditu, eta besteak *gora jaso* edo *ondasunez bete*. Baina dena maitasunak eraginda.